

Piku-hostoa



Jakoba Errekondo

jakoba@bizibartztea.eus

Udako oporrak antolatzeko beste proposamen batekin nator. Ekainetik irail erdira arteko tarte horretan goza daitekeen aukera bat. Mediterraneoaren ekialdeko bazterrean, Ekialde Hurbila deitzen dugun horretan, duela 2.000 urte inguru ziren landareen bilduma bat ezagutzeko aukera.

Garai hartako jendearen eta herrien historiaren berri izan eta nolako bizimodu zuten erakusten du landaretegi honek: elikadura, osasuna, espiritualitatea eta errituak... Baita janzkera ere, adibidez, larrubizi ez azaltzeko pikosto batez nola estaltzen ziren.

Liburu baten aipamenei jarraituz eraiki zuten, eta orduko ehundik gora landare aurki daitezke bertan. Tartean



Rodef Shalom Biblical Botanical Garden, Pennsylvanian (AEB).

DADEROT

dira ezagun zaizkigun olibondoa (*Olea europaea*), mahatsa (*Vitis vinifera*), pikondoa (*Ficus carica*), mingranondoa (*Punica granatum*), datilondoa (*Phoenix dactylifera*), papiroa (*Cyperus papyrus*), ostargi-belar arrunta (*Iris germanica*), igebelarra (*Nymphaea sp.*), hemerokaila (*Hemerocallis sp.*) etab. Badira ere ustez galduta zeuden landareak mirakuluz-edo berreskuratu dituztenak, kaparrondo bat (*Capparis spinosa*) adibidez.

Landare bakoitzak bere etiketan ditu izen zientifikoa, aipatutako liburuan dakarren izena eta liburuko zein ataletan aipatzen den.

Liburua, pentsatuko duzun bezala, Bibliako Itun Zaharra da. Landaretegia Rodef Shalom Biblical Botanical Garden da, eta Ameriketako Estatu Batuetan dago, Pennsylvaniako Pittsburghen. Sarrera doakoa da, baina dohaintzak eskertzen dira. ■

IRAKURLEAK GALDEZKA

Galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.eus helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

Kaixo Jakoba. Arroza daukat balkoiko loreontzi batean. Pentsatuta neukan martxoan kimatzea, baina ikusi dut adaxka berriak ateratzen hasi zaizkiola. Komeni da kimatzea? Eta nola kimatzen da arroza?

Arantza Arrue (Andoain)

Kaixo Arantza. Arrosondo edo arroza landare mota asko dago: igokariak, loraldi luzekoak, urtean behin besterik loratzen ez direnak... Lorontzian baduzu, arrosondo mota eta loraldi luzekoa izango dela pentsatzen dut. Horiek martxoan inautesteko esaten dut, baina orokorrean.



Garrantzitsuena kimu berriak azaltzen direnean egitea da. Horrek izerdi berria mugitu dela adierazten du. Izerdi horrek di-da batean itxiko ditu inausketan egingo dizkiozun zauriak.

Inausketa egitea komeni da arrosondoa lahar-edo igokaria delako (kiwia, mahatsa, etab. bezala). Arrosondo motz horiek jeneralean txertoa izaten dute oinean. Txerto horren gaineratik 2-4 adar indartsu izatea komeni da. Horiek moztan dira, motz, asko jota arrabete luze utzita. Horrela arrosondoa beti gaztea, berrituta, indarrean izango da, eta loreak ere sendoagoak izango dira.

Lan hori bezain garrantzitsua da ongarritzea. Loraldi oparoa nahi baduzu, eman jaten. Eman eta eman. Ongarri organikoa onena: simaurra, luarra edo konposta. Eta ongarriketa udaberrian eta udan errepikatu.